

Greba orokorraren balioa

Greba orokorra ongi ateratzeko milaka asanblada egiten ditugu, jendea konbentzitu, argudiatu, bozketak irabazi... Ideologizazio ariketa onak egongo dira beste esparru batzuetan, baina hau oso ona da, agian onena.

Greba orokorra maila goreneko antolakuntza test bat da. Antolakuntza test berezia erakunde bateko militanteek momentu jakin batean daukaten benetako trakzio gaitasuna neurtzeko.

Greba arlo politikoaren lehentasuna baieztatzea da. Lau urtetarako arduradun politikoei guztiontzako ona kudeatzeko ematen diegun ordezkaritza egun batez etetea da.

Greba guztiontzako onaren inguruko kontuetan daukagun ardura zuzena hartzea da.

Greba politikaren pribatizazioaren eta espezializazioaren kontrako borroka da. Jende xeheak, langile klaseak, ezjakinek politikari esaten diote "hemendik ez", "aski da!".

Greba ez da programa bat. Greba ez da utopia bat. Greba beste mundu posible baten posibilitatearen agerpena da eta epe luzera begira dago.

Grebak identitate kolektibo bat osatzen joatea ahalbidetzen du. Ez da ultimatum edo bukaerako traka bat, baizik eta “gu” bat osatzen joatea: emaitzak borrokatik datozela sinesten dugunon “gua”.

Hori hala izanda, guk ez dugu grebaren azterketa “enpresariala” egiten, kostu-etekinena alegia. Jakina, greba egiteak kostua dauka...

Baina gure kalkuluen arabera
garestiena zera da: geroz eta jende
gehiago pobretuta eta
prekarizatuta ibiltzea; hori
guztiontzako kalte segurua baita,
etorkizunera begira.

Denontzako lekua daukan gizarte bat aldarrikatzen dugu. Greba orokorra egiten dugunok ez diogu gure buruari bakarrik begiratzen; are gutxiago gure poltsikoari.

Greba orokorrarekin beste askoren borrokei sostengua ematen diegu.

Mezu ahaltsua dakar: “egunero borrokatzen zareten horiek gure herriaren onena zarete”.

Grebak estatu teknokratikoaren
eta gizarte zibilaren arteko
banaketa apurtzen du,

eta esparru instituzionalean
gertatzen diren borroka
partidarioen antzutasuna
azalaratzen du, politika neoliberal
berberak aplikatzen baitira
gobernuan dagoena dagoela.

Zentzu horretan greba orokorra
salaketa ariketa bat da.

Duela urte batzuk, lehendakari batek enpresaburuen ordezkaritza handi baten aurrean esan zuen: "Zuek herrialde honetako BPGaren %90a zarete".

Urtarrilaren 30ean, ehunka mila langilek beren gobernarietara eta enplegatazaileei gogoraraziko diete guk egiten dugula mundua; guk garbitu, irakatsi, zaindu, sendatu, zerbitzatu, ekoiztu, eraldatu, eraiki, saldu, banatu, garraiatu...

Gogoratuko dute ez dagoela gure lana ez den beste aberastasun-iturrik, eta lana soberan dagoelako guztiontzat enplegu, pentsio eta zerbitzu eta prestazio duinak egon behar dira.

URTARRILA
U30
ENERO
GREBA
OROKORRA

HUELGA GENERAL

Gora greba orokorra!

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

LAN-PENTSIO-BIZITZA

DUINA

SOBERANÍA PARA EL CAMBIO SOCIAL

URTARRILA
U30
ENERO

**GREBA
OROKORRA**

HUELGA GENERAL



Logo of the Basque Socialist Party (Euzkadi Herriko Eskubide Sozialak / Euzkadi Sozialista Partia) featuring a stylized 'E' with a rainbow gradient.